



*Donostiako  
jaiak  
2016*

• I R U T X U L O K O •

**HITZA**



# Kantatzen duten auzo eta herriak ez dira inoiz hilko

Kantatzen duen herria ez dela inoiz hilko esan ohi da. Bada, Donostiako auzo eta herrietako jaietarako sortu diren abesti mordoari erreparatu ondoren, argi geratu zaigu ibilbide luzea egingo dutela!

Irudimena eta sormena barra-barra dutela erakutsi dute, bai hitzak eta bai musika sortzerakoan: bertsoak, rapa, ska, reggaea edo rocka. Askotariko kantak aurkitu ditugu jaietarako ereserkien artean. Intxaurrendokoek sortu zuten lehen kanta, 90eko hamarkada inguruan. Auzo kantuzaleen zerrendan sartu den azken auzoa Bidebieta izan da. Raparen erritmoan murgildu, eta auzoaren 50 urteko historiaren pasarte batzuk ekarri dituzte gogora.

Auzoetako ereserki hauek kantak baino gehiago dira. Auzotarrak elkartu, eta auzoa egiteko helburuarekin sortu dira liburuxka honetan bildu ditugunak. Izan ere, ba al da bizipoza zabaldu eta jai giroa pizteko modu hoberik? Lotsak alde batera utzi, tonua galtzeko beldurra galdu eta festa berotzeko aitakia ederra dira kanta hauek!

Espero dugu liburuxka honekin oraindik jaietako abestirik ez duten jaietakoak animatzea, eta hurrengo urterako ereserki bila hastea! Oraindik badira eta, kanturik ez dutenak!

Kantu, dantza, irri eta algaraz bete daitezela jaiak! Kantuz iragan ditzatela gau eta egunak!



---

Donostiako Hedabideak E.M.  
Katalina Eleizegi 36, behea  
Erredakzioa: Nerea Lizarralde eta Lide Ferreira  
Argazkiak: Amara Berri, Ibaeta eta  
Morlansko jai batzordeak; eta IRUTXULOKO HITZA  
Diseinua eta maketazioa: Lide Ferreira  
Zuzendaritza: Nerea Lizarralde  
Inprimategia: Gertu

# Ibaetako jaiak

Duela bi urte, auzoko gazte batek Ibaetako jaien kanta sortu zuen. Gitarraekin lagunduta, auzoa deskribatzen duen abestia konposatu zuen. Kantak dion bezala, kontuz Ibaetarekin! Itxura lasaia duen arren, martxoan 'desmadratu' egiten baita!



*Donostiako sarreran,  
aurki zaitezke  
egongo bazina bezala etxean  
ze hor dago Ibaeta  
Añorgatik bazatoz,  
aurrea tira eta ezkerreta*

*Enpresaz inguratua  
baina kontserbatzen du  
baserriko espiritua.  
Oso toki lasaia,  
martxo hasieran  
desmadratzen da baina*

*Hasten da festa bikaina,  
dago Donostia guztia  
mozkortzeko kalimotxo aina (la kaña)  
Txoznan jende makina  
irribarre alaiez  
onartuko dizute propina*

*Jai batzorde prestua  
gutxitan ikusi det nik  
holako pulamentua.  
Eta Egan ikusteko aukera  
gainera ez dezu  
ordaindu behar sarrera*


  
**DELTA**  
 PAPERERIAS



Andrestegi, 2 behea - ANTIGUA - Donostia  
 943 22 38 98 - [deltapaperias@gmail.com](mailto:deltapaperias@gmail.com)






  
**TANTTAKA**  
 teatroa

**TANTTAKA Teatroa**  
 Salamanca pasealekua, 14 - 4.bulegoa  
 20003 DONOSTIA - Tel.: 943 42 94 94  
[tanttaka@produkzioak.com](mailto:tanttaka@produkzioak.com)

# Morlansko jaiak

Beñat Gaztelumendik jarri dizkio hitzak gas fabrika zegoen espazioan altxataka auzo berriari. laz estreinatu zuten, jaien lehen egunean, auzotar guztiak elkarrekin kantatuz. Auzo berria izanik, auzoa egin eta Morlans zaharreko bizilagunekin elkartzeko deia egiten dute bertsoek.



*Morlans goikoa eta  
behean dagoena  
bakarra izango da  
festetan barrena  
nahiz eta jakin auzo  
hau anitza dena  
hemen badugu zerbait  
batzen gaituena*

*Festena aitzakia  
ederra nola zen  
zerekin gozatua  
badugu Morlansen  
luze jarrai dezagun  
giro bat osatzen:  
Auzoa egin eta  
auzoaz gozatzen*

## ZUHATZAN ETA DONOSTIAN UDALEKUAK EUSKARAZ

### ZUHATZA

- Ur jarduerak: optimist, piragua, windsurf...
- 2002, 2003 eta 2004, urtean jaiok
- Jolas dibertigarriak - Gau beltak - Lagun berriak egin
- Abuztuaren 1etik 10era
- Egurrezko etxolatan Iu egingo dugu
- Autobusa Amaratik aterako da

Animatu!  
Ondo pasako  
dugu!

### DONOSTIA

- Abuztu eta irailen ere euskaraz jolatu dezakegu
- Artzain Onaren plazan elkartuko gara
- 9:30etik 13:30era
- 2005-2011 bitartean jaiotakoentzat
- Asteka edo egun solteka izena eman daiteke



### KIRIKETAN



MATRIKULA

943 453 334

[www.kiriketan.com](http://www.kiriketan.com)

# Bidebietako txanponxoak

Kantarik berriena da Bidebidetakoa. Hain zuzen ere, aurten osatu dute Kontadores Gazte Zentroko hainbat ikaslek. Unai Neira Norzzone rap abeslariaren gidaritzapean, auzoaren azken 50 urtetako ibilbidea izan dute hizpide sortu duten euskarazko rap abestian.

*Ion Olano, bere tokayo Martin,  
Iratxe, Katta, Norzzone eta Maddi Machine.  
Betiko saltsan, burmuin ekaitzan,  
barneratutak bihotza jartzen zaigu dantzan  
Ta dim dam, dim dam!  
Bidebieta bizirik  
izan zenarekin ez du zerikusirik.  
Hamabi apostulu, Jainko bakarra, mina.  
Garai horiek gainditzea auzotarren grina.*

*Hamabi apostuluren behaketa tentea  
agian deprimitua, inoiz ez deprimentea,  
hire buruan hiriburua beti dotore,  
aldira aldiriak denboraren kontadore.  
Duintasuna, langile begietan,  
helmuga bera, bide bietan,  
herri erretan, oinak harrietan,  
lore ederrenak sortzen dira zabortegietan.*

*Bidebieta, bi bide direla badakizu,  
ez da rapa eta baskoa juntatu ta ya.  
Auzoko neska, taka-taka, ibiltzen ikasten da, kostata,  
ratatatata euskal feministen kasta.  
Bertigoa ematen du, baietz,  
urteetan murrak matxiruloz, drogez beteak nola zeuden  
orain plazez plazereez, rapera feministez,  
baietz: auzoa auzoago egiten da, joder.*



«De que bloque eres?» euskeraz egin, faborez,  
gagoz rapa euskalduntzeko gogoz,  
flow gehio nola degun nahio,  
Txanpontxoan omenez egingo degu trago, dedio.  
Mobida hau geratukodunik eztao.

Auzo honen historia, has nadin kontatzen,  
La Paz izenarekin Francok sortua zen.  
Langabe langileak gosez amorratzen,  
aberatsak bitartean dirua zenbatzen.  
Kontatu didate Franco etorri zela,  
diktadore miserable, gizontxo txepela,  
hamabi apostuluak altxatu zirela,  
ospatzeko patxisten pake ustela,  
izena eman zioten patxistek La Paz,  
pakea inosatzeko zirenez kapaz,  
narkoa jarri zuten hemen kapataz,  
dena baketu zuten zaldi kakaz.  
Horrek eskatu zuen makina bat kemen,  
orratz zurruparien erasoei eusten,  
gerra gorria dago gordina hemen,  
baina bakearena auskalo zer den.



Ahaz ditzagun kontu ilunak, gaindi ditzagun historietak,  
hasi nadin kantuan, nere txanda da eta.  
Gazteena eta azkena, hori ez da izan okerrena,  
tabladuko honen taupadak izan dira zailenak.  
Baina hemen nauzue, ezinaren grinaz,  
saiaitzen askatzen, ixten nauen mina.  
Hori ez da lan fina, Bidebieta jada egina,  
mila esker zuei, beste bat arte kuadrila.

**LARRAMENDI, S.L.**   
**GASOLINDEGIA**

**Automat sistema zure zerbitzura 24 ordu**

Nafarroa hiribidea 5 - 20013 DONOSTIA  
☎ 943 279211  
Faxa: 943 279890

**Oiartzun**  
ARTISAU GOZOTEGIA | PASTERLERIA ARTESANA

Gozotegia:  
Jentzi kalea 2  
Tél.: 943 42 62 09

contacto@pasteleriaoiartzun.com  
www.pasteleriaoiartzun.com

Lantegia:  
Jialdi kalea 6  
Tél.: 943 29 09 07

# Herrerako sanluisak

Auzoko jaietako buruzko kantarik ez zutela ohartuta, abesti bat sortzeari ekin zioten. Gino fanfarrekideak konposatu zuen, eta Luisito Garinek idatzi zituen hitzak. Herrerako haurren ahotsekin grabatu zuten kanta. Ez zen grabaketa profesionala izan, baina etxeko bertsioak oso harro daude Herrerakoak. 2014an estreinatu zuten. Iaz, auzoko gazte talde batek abestirako dantza sortu zuen, eta geroztik, auzotar guztiek dantzatzen dute Luisito eta Luisitarekin batera.



*Iritsi dira jai egunak alai eta ederrak,  
umore onez gure auzoan bertan  
elkartzen gaituenak.*

*Luisito, Luisitarekin goaz denok batera  
elkarrekin bizitzera San Luis jaiak Herreran.*

*Zatozte denak herri plazara  
gutziz ondo pasatzera,  
kanpokoak eta bertakoak noski  
elkarrekin ospatzera! (bis)*

*Laguna zatoz, kantu, dantza, pinta, jolas  
herri giroa gustora sortzera.  
Zatoz, kantu, dantza, pinta, jolas  
Gure plaza betetzera HERRERAN!*

Elektrogailuak eta tresnak  
**ESTALAYO**  
Sukalde eta etxeko diseinua

Urdaneta 18, Donostia.  
Tlf: 943 46 75 27

Paseo Ubarburu 30, pol 27  
Donostia.  
Tlf: 943 47 50 13

[www.liendosestalayo.com](http://www.liendosestalayo.com)





# Groseko Zipotz jaiak

Groseko gazte asanbladak sortu zuen Zipotz jaietako kanta. Musikarako talentua soberan dago auzoan, eta hainbat laguneren artean egin zuten: Mikel Muñoz, Beñat Antxustegi, Raquel Caldevilla, Iñigo Etxarri, Oihane Jaka eta Xalba Ramirez. Auzotar guztiak jaietan ondo pasatzera eta parte hartzera animatzen ditu abestiak. 2008. urtean kanta sortu zutenetik jaien azken egunean kantatzen dute denek elkarrekin.

*Zipotz okupa ta pirata  
Zipotz jai parekideen alde  
Zipotz falta direnengatik  
jaiak herritik herriarentzat*

*Uztailaren hirugarren astean  
Groseko jaiak hastean  
auzoa kolorez janzten da  
ostegunetik igandera*

*Beteranoen bizipoza  
haiak dakite nola goza  
gazteen lotsagabekeria  
ta haurren ilusio ta irria*

*Aurten ere  
Groseko jaiak!*

*Etzazu egin lorik  
amets egin esna  
lau egun hauetan  
emanzazu dena  
ilusioz beteta  
eginzazu dantza  
aprobetxa dezagun  
urtean behin da ta  
Groseko jaiak!*

*Uztailaren hirugarren astean...*

*Aurten ere  
Groseko jaiak!*

*Etzazu egin lorik... (bis)*

*Zipotz okupa ta pirata...*



**hitzez** euskaltegia

**Euskara ikastaroak**

HABE-K homologatua

aprende euskara  
en **GROS-en**  
ikas ezazu euskara

Kolon pasealekua, 5 behea  
Tel.: 943 27 81 55  
e-mail: hitzez@hitzez.eus  
GROS · 20002 DONOSTIA

# Añongako karmenak

Urte berean jaió ziren Zementon eta Añongako karmenetako kanta, 2009. urtean. Gasteizko Zeledon pertsonaiak inspiratuta sortu zen Zementon –auzo-ko porlan lantegia dela eta–, eta handik gutxira grabatu zuten abestia. Kepa Matxainek sortu eta grabatu zuen musika, eta Beñat Gaztelumendik idatzi zituen hitzak. Horrenbesteko arrakasta izan zuen kantak, ia auzotar guztien sakelakoan entzuten zela, telefonoak jotzen zien bakoitzean. Jaietan ez ezik, auzoko edozein ospakizunetan ere jartzen zuten jaietako abestia.

*Iritsi da eguna  
gure etorkizuna  
marraztuko duguna  
kolore urdinez*

*Eskutik helduta  
dantzatu dezagun  
frontoian sartuta  
etorri laguna*

*Zementon da  
Zementon gure heroia  
añongatarren bihotzera heldu da (bis)*

*Gaurtik aurrera gauak  
argiz jantziko dira  
biok egon gaitezen  
zerura begira*

*Eskutik helduta...*

*Zementon da... (bis)*

**MARCOS**  
*okindegia*

*Benetako antzinako ogia*



Ubarburu pasealekua, 113 • 27. Industrialdea • ASTIGARRAGA  
Tel.: 943 45 09 66 - Faxa: 943 11 67 28

# IRALE

IRAKASLEEN EUSKARAZKO PRESTAKUNTZA ZERBITZUA

Larratxo pasealekua 51-53 | DONOSTIA | Tel.: 943404610 | 012233aa@hezkuntza.net



www.restaurantegandarias.com

**Gandarias**  
JAITEZIA

Jatetxea 11:00etatik 24:00etara irekita

Abuztuaren 31, 23 - Tel.: 943 42 63 62 - DONOSTIA

**JUANIXO**  
FABRICA

ESPEZIALITATEAK:  
OGITARTEKOAK,  
BANDERILA  
BERO eta HOTZAK

Enbeltran kalea, 6 • Tel.: 943 42 74 05 • DONOSTIA

# Jainik ez galt

## Ekainean

Larratxoko jaiak, ekainaren 9tik 12ra  
Antiguako sanjuanak, ekainaren 9tik 23ra  
Herrerako sanluisak, ekainaren 11tik 23ra  
Amara Berriko jaiak, ekainaren 17tik 23ra  
Oletako jaiak, ekainaren 21etik 27ra  
Intxaurrondoko sanjuanak, ekainaren 23a  
Intxaur jaiak, ekainaren 24tik 26ra  
Igeldoko sanpedroak, ekainaren 23tik uztailaren 3ra  
Altzako sanmartzialak, ekainaren 25etik uztailaren 3ra

## Uztailean

Amara Berriko karmenak, uztailaren 8tik 17ra  
Añorgako karmenak, uztailaren 9tik 17ra  
Groseko Zipotz jaiak, uztailaren 14tik 17ra  
Kaiko karmenak, uztailaren 14tik 17ra  
Zubietako jaiak, uztailaren 23tik 31ra  
Amarako jaiak, uztailaren 28tik 31ra  
Loiolako saninazioak, uztailaren 28tik 31ra

### Berezitasunak

- \* Txerri ukondoa
- \* Saltxitxak
- \* Garagardoa
- \* Gaugiro ederra

[www.duitbar.com](http://www.duitbar.com)



ANTONIO ARZAK 4  
TEL.: 943 312717  
20018 • DONOSTIA

offset eta  
digitala  
inprimaketa

diseinua eta inprimatu aurrekoak  
offseta y digitala  
azken ukituak  
liburu argitalpena  
postontzietako banaketak



fasprint  
igara

Pilotegi bidea, 12 - Tel. 943 213 440 [www.fasprintigara.com](http://www.fasprintigara.com) / [info@fasprintigara.com](mailto:info@fasprintigara.com)

# zereko egutegia

## Irailan

Añorga Txikiko jaiak, irailaren 2tik 3ra  
Txomin Eneako jaiak, irailaren 2tik 4ra  
Intxaurren Zaharreko jaiak, irailaren 7tik 11ra  
Jolastokietako jaiak, irailaren 7tik 11ra  
Aieteko jaiak, irailaren 9tik 18ra  
Egiako porrontxoak, irailaren 10etik 18ra  
Loiolako Erriberako jaiak, irailaren 16tik 18ra  
Alzako Santa Barbarako jaiak, irailaren 16tik 18ra

## Urrian

Amara Berriko jai herrikoiak, irailaren 6tik 9ra  
Martuteneko jaiak, irailaren 7tik 12ra

Kantauriko arrainak eta itsaskiak  
Idi txuletoa  
Etxeko gozogintza

[www.casatiburcio.com](http://www.casatiburcio.com)

Ondo pasa jaiak!

**CASA TIBURCIO**  
JATETXEA

Fermin Kalbeton 40 - 20003 DONOSTIA  
Tel.: 943 42 31 30 / 943 42 06 82



Arreta pertsonalizatua

Kolore eta mozketara garaikidea

**IzpiarAbad**  
leapaindegia

Moroccan oil tratamendua

Irudi aldaketan aholkularitza

Segundo Izpizua, 26 - behea

Tel.: 943-29 80 37

# Amarako jaiak

Skakeitan musika taldearena da Amarako jaietako kanta. Mireia Mochales auzotarrak jarri zion ahotsa abestiari. Ska eta reggae eritimoan dantzatzeko kanta da. 2010ean sortu, eta urte hartako jaietan estreinatu zuen zuzenean Skakeitanek, Easo plazako taula gainean.

*Egun guztian zehar lan egin ostean  
Heldu da jaiaz gozatzeko unea  
Haur, gazte, heldu eta zaharrentzat  
Primeran pasatzeko aukera aparta  
Hemen dira!*

*Hator, hator, Easoko plazara  
Hator, hator, kristoren festa dugula  
Hator, hator, autogestio gunera  
Hator, hator, auzokide etxera  
Amarako jaiak! (x7)*

*Gure txorimaloa dantza gogoz da  
Jai herrikoi eta parte hartzaileak  
Zailtasunen gainetik, berriro hemen dira  
Hurbil zaitezte denok Easo plazara  
Hemen dira!*

*Hator, hator, Easoko plazara  
Hator, hator, kristoren festa dugula  
Hator, hator, autogestio gunera  
Hator, hator, auzokide etxera  
Amarako jaiak! (x7)*



ZUMARDI

taberna



Pintxoak  
Plater konbinatuak  
Bokatak  
Entsaladak  
Egunero plater berezi bat



ZUMARDI PASEALEKUA 22, HERRERA - Tel. 943 393 775



AYESTARAN

Narrika kalea, 16 - PARTE ZAHARRA  
Tel.: 943-422 681 - narrikagrabatuak@hotmail.com

# Intxaurrenondo Zaharreko jaiak

Garai batean, gaztelera-ko abesti bat sortu zuten Intxaurrenondo Zaharrekoek, jaietako mozkorrentzat eta auzoko danborradarako –tartean, Artzak Ortzeok eta Zulo Zahar elkarteek jotzen dute–. 90eko hamarkadan, baina, auzokide batek euskarazko bertsioa idatzi zuen. Ordufiki, jaietako pregoia baino lehen edo «edozein momentutan» entzuten da, baita San Sebastian egunean jo ere.

*Intxaurrenondo zan aspaldi  
auzo txiki ta alaia  
baserri josiz bete  
hura zen hura garaia*

*Gaur gauzak aldatu dira  
bada hainbat birtute  
Intxaurrenondo auzo hortan  
bizi nahiko genuke*

*Hori da, bai jauna,  
Intxaurrenondo hoberena*



LIBURUDENDA  
PAPERDENDA

EGUNKARIAK - ALDIZKARIAK - LIBURUAK  
PAPERAK - BULEGORAKO ARTIKULUAK

Matia kalea, 44 (Antigua) - 20008 DONOSTIA  
Tel. - Faxa 943-21 72 83 / garazi@garaziliburudenda.com  
www.garaziliburudenda.com



Oliyos  
Taberna-Jatetxea  
Josexo Irurtia



Erregezain kalea, 4 DONOSTIA Tel.: 943 21 49 89

# Egiako porrontxoak

Urtero jaietako egitarauan agertu ohi zen bertso bat omen da Porrontxo jaietako lehen kanta. Geroztik, beste kanta batzuk sortu dituzte. Bolinga Sound Systemek 2008an jaiak alaitzeko *Aurrera doa* abestia egin zuen Jon Elizaldek jarritako basearen gainean, Bolingako kideek eta koadrilietako gazte, heldu zein haurrek borobildutakoa. Ondoren, egungo kanta ofiziala sortu zuten: *Porrontxinaren dantza*. Auzotarrek Bolinga Sound Systemekin batera egindako abesti dantzagarria da. Jaietako txupina piztu aurreko euforia eta festaz gozatzeko gogoak deskribatzen du.



*Porrontxo mugitu berandu da!  
Porrontxina itxaron banoala!  
Etxafero hotsa festa hasi da!  
Koadrilak dira EGIA DA!*

*Mozorro ta kolore  
txakurrik gabe hobee!*

*Mozorro ta kolore  
falta direnak ere!*

*Esdua emaidazu lanerako  
baita gero ere dantzarako  
asko dugulako esateko  
Odon bera ere izutzeko*

*Porrontxo Porrontxina kalejiran dira  
Egia festa kolorez margotzeko griña  
ez dut denborarik galtzeko  
lau egun besterik ez direlako*

*Porrontxo mugitu berandu da!  
Porrontxina itxaron banoala!  
Etxafero hotsa festa hasi da!  
KOADRILAK GARA! EGIA DA!*

*Mozorro ta kolore  
txakurrik gabe hobee!*

*Mozorro ta kolore  
falta direnak ere!*





Teorikoa euskaraz ere | Baimenak: AM, A1, A2, A eta B

Mikelete pasealekua, 20  
943 21 65 51

**ANTIGUA**

Tolosa hiribidea, 15  
(sarrera Antonio Arzak kaletik)  
943 10 60 94

**TETUAN TABERNA**  
**BAZKARIAK ETA AFARIAK**

Karmengo Ama, 32 B - EGIA Tel.: 943 279 796



# Kaiko karmenak

17

Ze Esatek! musika taldearena da kaiko karmenetako jaien abestia. Taldearen ohiko estilo ganberroarekin, ska eta reggae eritmoan mugiaraztera animatzen ditu festazale guztiak. Joaten diren lekuan festa eta parranda sortzea omen da taldearen filosofia, eta abestiarekin hori lortu nahi dute, jendeak dantzatzea eta gozatzea.

*Marearekin igo da Karmen  
Marik bota du aingura  
itsasontziatik itsasontzitik  
soka luzatu portura  
Euskal Herria, besoak gora  
dantzara eta kantura  
Kontxari irri ziri zirrita  
karramarroa sartu da (bis)*

*Karramarroa korroan harro  
haginekin kizki kazka  
arrantzaleak arraunka arraun  
eta haurrak plisti plasta*

*Elkarren gose, elkarren grinez  
maitaleak arramazka  
portu zaharrean kulunkatzen da  
desioaren seaska  
desioaren seaska*

*Dantzatu, gozatu  
salto batean sartu  
ez gelditu begira (x4)*

*Karmengo jaiak  
hemengo jaiak  
herri giroko pastalak  
hemen gaudenon ta ez gaudenon  
krisellu argi itzalak  
gauzarik gauza  
pausorik pauso  
astindu denok hegalkak  
askatasunez busti gaitzala  
auzolanaren kresalak  
auzolanaren kresalak*

*Dantzatu, gozatu... (x4)  
Karmenetako jaietan (x4)*

*Uaaaa, murgildu Portu Zaharreko jaietan  
Uaaaa, murgildu Portu Zaharreko jaietan  
Gure Portu Zaharreko jaietan (x2)*

*Dantzatu, gozatu... (x4)*



**ogiaren egia**

- Ziurtagiria duten ogi biologikoak
- Harri erota irin duten ogiak
- Orantza ogia
- Galtxuri (Espelta) ogi biologikoa
- Gluzemia baxua duten ogiak

**ALDEA**  
Hemen ogia hasieratik  
bikainaraino bertan  
egiten dugu, ez dugu  
ogi aume-erarik saltzen.

**Galparsoro  
OKINDEGIA**

Kale nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074 - [www.galparsorookindegia.eu](http://www.galparsorookindegia.eu)

# Amara Berriko jaiak

Amara Berriko urriko jaiak ilegalak izan dira hamar urtez, 2012a arte. Jaien alde borrokan ematen zituzten festak umorez bete nahi zituzten. Jai batzordeko Garazi eta Odilek idatzi zituzten hitzak. 2010eko udako hit-a Shakiraren Waka-Waka izan zen. Barre algara artean, errazena doinu hori kopiaetzea izango zela pentsatu zuten. Laguntza eskatzen hasi ziren, eta denek baietz. Jaietan goizak girotzen zituen musikaria, Aratz Parte Zaharrekoa, auzoko Olatz Salvador eta Mitxus abeslariak eta Ze Esatek taldeko teknikariak parte hartu zuten. Zailtasun guztien gainerik, auzolanean lortu zuten Amara Berriko jaietako abestia egitea.

*Super Super  
Xagu Xagu (Bis)*

*Iritsi da eguna  
Denok batera  
Jai herrikoiak  
bizitzeko aukera  
Izango deguna*

*Oztopoen gainerik  
Festara goaz  
Bizikleta, peluka bat  
Ta kalera jeitsi!*

*Amara Berri esnatu  
Parte hartuz gozatu  
don ez zaitugu ahaztu  
Izorratu nahi gintuzun  
Orain entzun behar gaituzu  
Izozkia urtu zaizu!*



[www.eskulanen-etxea.com](http://www.eskulanen-etxea.com)  
**Eskulanen Etxea**

**Elkano kalea, 5 • Donostia • 943 420 205**

*Deitu eta zure aurrekontua eskatu*

[www.jobilan.com](http://www.jobilan.com)  
**620706936**

**JOBILAN**  
ERREHABILITAZIOA

Faxadun isolamendu termikoa (SATE)  
Teilatua  
Pintura berria eta kanpoaldean  
Lan koordinaketak

[info@jobilan.com](mailto:info@jobilan.com)  
Teorika Bertrabatu 27. anb. - Atxa - Donostia



**IPURU S. L.**  
**ERAIKUNTZAK**

Mundaiz bidea, 10 - 2. solairua - 24. bulegoa  
Tel.: 943 424 121 - 20012 DONOSTIA - [www.ipuru.com](http://www.ipuru.com)

*Jaietan ere euskaraz!*



**Urrats**  
euskaltegia

[www.urrats.eus](http://www.urrats.eus) 943 465 593 Karlos I., 10 / Amezketa, 12

# Kartelik gabe

## Ibai Etxarni

Grosetako Zipotz jaiak badute kartela! Intxaurrendoko Ibai Etxarni ilustratzaileak egin du. Ez da Grosetako jai batzordeko kideekin kolaboratzen duen lehen aldia. Iazko San Tomas egunekoak ere berak marraztu zuen-. Zurriola hondartzan girotu du jaietako kartela. Zipotz eta Legami agertzen dira, erraldoi, buruhandi eta txarangako kideekin batera. Etxarriren lana hobeto ezagutu nahi baduzu, jarraitu Irutxuloko Hitzaren iritzi atala, gaurkotasunarekin lotutako gaiak irudikatu ohi ditu eta.



# ez dago jainik


## Xabi Medrano

Diseinu grafikoa ikasi zuen arren, marraztea ez du ogibide. Baina nabari da zai-  
netan daramala marraztea eta sortzea. Jai batzordeko kide ere bada  
Medrano, eta ongi ezagutzen ditu auzoko jaiak. Larratxo jaietako azken hiru kar-  
telak egin ditu Xabi Medranok. Jaietako jarduera nagusiak irudikatu ditu kartele-  
an. Besteak beste, paella txapelketa. Juan Mari Arzak sukaldaria agertzen da  
paella handi batekin, dastatutakoari oniritzia ematen. Arzakek berak egiten ditu  
epaile lanak paella lehiaketan.



# Jolastu!

Ezagutzen al dituzu jaietako ikurrak?



1. Zipotz eta Legami (Gros) 2. Karmentxu balea (Amarra Berriko karmenak) 3. Zementon (Añorgako karmenak) 4. Superxagu (Amarra Berriko jaiak) 5. Ilizea (Lola) 6. Tontorito (Igejako jaiak) 7. Forrontxo eta Forrontxina (Egjak) 8. Txanpon txo (Txanpon txo) 9. Karmamarro (Kalko karmenak) 10. Luisito eta Luisita (Herrerako sanluisak)

**JUANITO KOJUA**



[www.juanitokojua.com](http://www.juanitokojua.com)

Portu kalea, 14 - Donostia - 943-420 180  
reservas@juanitokojua.com

*little lola*

Zure bizitza  
kolorez margotu  
nahi baduzu,  
pass zaitez!!

GRAN VIA, 17 - GROS  
DONOSTIA - 943 27 16 83



# Irakurri, bizi eta gozatu euskaraz!

**Guztion artean Donostiako euskarazko komunikabide indartsuago bat egingo dugu**



**943-46 72 36**  
**harpidetza@hitza.eus**  
**irutxulo.hitza.eus/harpidetza**

## Harpidedun berriaren datuak:

Izen-abizenak:

N. A.:

Lanbidea:

Jaioteguna:

Helbidea:

Herria:

P. K.:

Tel.:

Posta elektronikoa:

Kontu zenbakia:



*Donostiako jaietako  
informazio guztia non?*

**IRUTXULO.HITZA.EUS**

IRUTXULO KO HITZA - DONOSTIAKO HEDABIDEAK E.M.

Katalina Eleizegi 36 - behea | Donostia

Tel.: 943-46 72 36 | [harpidetza@hitza.eus](mailto:harpidetza@hitza.eus)